

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin behineko onespena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko erroldari

Ediktua

Nik, Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Amurrioko Udalaren tokiko gobernu batzarrak, 2020ko irailaren 10eko bilkuran, behin-behineko onespena eman ziola jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko erroldari (espedientea: 2020/1/S280).

Espediente hori ikusgai egongo da udalaren kontuhartzailletza atalean 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa duen orok aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Amurrio, 2020ko irailaren 10a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA